

eskubide eta betebeharrak



Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia



Alboan
FUNDACIÓN PARA EL DESARROLLO SOLIDARIO
ELKARREN GARAPENERAKO FUNDATZIOA

Bideoaren laburpena

Internet bidez eta modu azkar eta dinamiko batez, hasieran eskubideen gaira hurbilketa bat aurkeztu da eta geroago betebeharren gaira. Horrek batzuen eta besteen arteko oreka baten beharra izatera garamatza. Gertuko adibideen bitartez (napster, futbol partida, ...) oreka horren beharra ikusiko dugu. Azkenik, gure jarduerak munduan duten eraginaz ohartzen gara. Eta azken galdera da, nolakoa nahi duzu izatea gure mundua?

Aurkezpena

Aurkeztuko dugun materiala **"eskubideak eta betebeharrak"** bideoko edukiak lantzeko tresna da. Prozedura ezberdin eta berrien aldeko apustua egiten duen jarduera multzo baten bitartez, bideoan adierazitakoari esanahia eman eta berau lantzeko jarraibideak ematen dira.

Materiala 12 eta 18 urte bitarteko 20-30 pertsonatako taldeekin lantzeko diseinatu da.

Diseinatutako jarduera ugari eta ezberdin horiek osotasunean zein partzialki aplikatzeko parada ematen du, eta horrela, taldearen adin eta ezaugarriei hobeto egokitzen zaizkien jarduerak hauta daitezke.

Halaber, material irekia denez, hezkuntza formal zein ez formalean gauza daiteke.

Helburuak

- Eskubide eta betebeharren arteko loturen gainean hausnartzea, bai eta jardueren eragin eta ondorioen inguruan ere.
- Mundu mailako interkonexioa ulertu eta hiritar legez den norberak duen ardura onartzea.
- Talde lanean entzun, lankidetzan aritu eta parte hartzeko jarrera azaltzea.
- Bitzita eremu guztietan inplikatzeko (familia, ikastetxea, berdinaren taldea, auzoa, hiria...) norberak dituen jarrerak aldatzeko konpromisoa hartuz eskubide eta betebeharren artean oreka eta elkarrekotasuna egon dadin ahalegintzeko.

Edukiak

Bideoan eta proposaturiko jardueretan azaltzen diren edukiak honakoak dira:

Kontzeptualak:

- Giza eskubideak pertsona guztienak dira.
- Eskubideen izateak derrigorrean du betebeharraren.
- Beharrezkoa da eskubide eta betebeharren arteko oreka.
- Geure esku dago oreka hori gordetzeko ardura, izan ere, horrek badu eraginik herri, nazio, nazioarte eta mundu mailan.

Prozedurazkoak:

- Aurretiazko ideiak identifikatzeko estrategiak.
- Informazio iturri ezberdinen maneia.
- Rol jokoak eta dramatizazioak burutzea.
- Hausnarketa, elkarriketa eta debata.
- Teknologia berrien maneia.

Jarrerazkoak:

- Entzute aktibo eta adeitsua.
- Parte hartze eta lankidetzak aktiborako jarrera.
- Errealitate ezberdinen aurreko enpatia sustatzea.
- Eskubide eta betebeharren arteko onartzea eta bien arteko oreka izatearen beharraz ohartzea.
- Geure munduan protagonista diren norbere erantzukizunak onartzea.

Metodologia

Metodologia aktibo eta partehartzailea proposatzen da, talde lana eta entzutea zein lankidetzak errazten duten dinami-ken aldeko apustua egiten duena. Prozedura ezberdinak dira: hausnarketa, debatea, rol jokoa, dramatizazioa, talde dina-mika, etab. Prozedura ezberdina izateak, jasoko dutenentzat material arin eta motibagarria eta hezitzaileentzat erabil-tzeko erraza izatea dakar.

Jarduerak hiru taldetan banatuta daude aplikatzeko une aproposaren arabera. Horrela, eskubide eta betebeharren aurretiatzeko kontzeptu eta ideia batzuk lantzeko lehendabiziko talde bat aurkezten da. Ostean, bideoa ikusteko gidioa izango da, eta amaitzeko, behin bideoa ikusita praktikan jartzeko jarduera ezberdin batzuk.

Ebaluazioa

Materialaren inpaktua eta ezarritako helburuen betetze maila baloratzearen, taldearen ebaluazioa egitean kontuan hartzeko irizpide nagusiak biltzen dituen oharren honako zerrenda hau:

Oharren gidioa	1	2	3	4	5
Landutako edukien ulertze maila.					
Talde lanean izan den parte hartze maila					
Talde lanak izandako arau eta erregeletara egokitze maila.					
Beste iritzi eta ideia batzuk arretaz entzun, errespetatu eta onartzeko gaitasuna.					
Eztabaida eta emanaldietan izandako inizatiben maiztasuna.					
Debateetan eta komunean jartzean izaniko sormena eta laburtzeko gaitasuna.					
Egoera konplexu edota gatazkatsuetan erabakiak hartzeko gaitasuna.					
Norbere erantzukizuna hiritar den aldetik onartzeko gaitasuna.					
Norberak dituen ohitura eta jarduerak aldatzeko prest azaltzea beroriek dituzten ondorioen arabera.					

Alboan-eko web orrian hezitzaile zein neska-mutikoek bideoa eta jarduerak ebaluatzeko galdetegia dago. Oso interesgarria eta balio handikoa da Alboan Hezkuntza Elkartasunean taldearentzat zuen iritzi eta balorazio guztiak ezagutzea, izan ere funtsezkotzat jo-tzen baititugu gure materialak egiten jarraitzeko. Hori dela eta, laguntza eskatzen dizuegu.

Ebaluazioak eskuragarri dituzue: [http:// www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Alboan-en hezkuntza proposamena eskubide eta betebeharren gaia lantzeko dohainik eska daitezkeen beste baliabide ba-tzuen bidez osatzen da: girotzeko posterrak, proposamen didaktikoak dituzten karpetak, mahai jokoak, albiste eta komiki lehiaketa, Alboan Hezkuntza Elkartasunean taldearen aholkularitza eta prestakuntza zerbitzua.

Informazio gehiagorako: Padre Lojendio kalea, 2 – 2 • 48008 Bilbo • Tf: 94 415 35 92 • E- mail: alboanbi@alboan.org.
Bergamin kalea, 32 • 31004 Iruñea • Tf: 948 23 13 02 • E-mail: alboanna@alboan.org



Bideoa ikusi aurretik

Neure munduko protagonistak

Helburuak:

- Aurretiaz diren ezagutza eta ideiak bideoko edukiekin lotzea.
- Onartuta ditugun arauak (eskubide eta betebeharrak) zehaztea haiekin lan egin ahal izateko.
- Baloreak osatzeari buruzko elkarrizketa iraunkor batean parte hartzeko beharrezko diren trebetasunak ikastea.

Garapena:

Jarduera honetan neska-mutikoei inguruan duten munduaren gainean hausnartzeko aukera izango dute. Horretarako, eta progresiboki, ondoren proposatzen diren galderei erantzun eta bizitzako eremu ezberdinetan murgilduko dira. Behin galderak erantzunda, bikoteka, eremu ezberdinetan nagusitzen agintzen duten arauen dekalogoia egin beharko dute. Ostean, dekalogoia guztien artean adostu daiteke.

Materiala: Papera eta errotuladoreak.

Iraupena: Ordu 1.

Sartuko gara bete-betean bizi garen munduan.

Non bizi zara? Noiztik?

Beste inon bizi izan zara? Ez dago urrunegi joan beharrik, "zeure munduaren" aurrean jarri besterik ez.

Pentsa ezazu behean dituzun eremuetan:

Zure lagunak Zure ikasgela, zure ikastetxea Zure familia Zure auzoa, zure herria Telebista / Publizitatea

Zer-nolako arauak agintzen dute? Nork jartzen ditu arauak? Zein eginbehar sortzen da?

Telebista edo publizitateari dagokionez, zeintzuk dira agintzen duten baloreak?

Eta nagusitzen diren legeak?

Taldeka, eremu bakoitzerako arauen dekalogo bat egin ezazue.

Ordena itzazue garrantziaren arabera.

- Zenbat eskubide eta betebehar jaso duzue? Zein motatakoak dira eskubide eta betebehar horiek?
- Uste al duzue ona litzatekeela eskubide eta betebeharren artean oreka bat izatea?
- Eremurik hurbilenetan: familia, lagunak, ikastetxea, institutua... errazago esan dezakegu gure eskubideak zeintzuk diren. Gure auzoan, gure herrian aldiz, ez gara funtzionamendu egokiaz horren erantzule sentitzen. Zein uste duzue dela horren arrazoia?
- Geure munduko protagonistak gara, zein esanahi du zuentzat esaldi horrek?
- Zein mundutako protagonistak gara? Soilik hurbilena den horretakoa: gure familia, gure lagunak..?

Pentsa ezazu koloreetan

Helburuak:

- Irudimena eta sormena lantzea giza eskubideak norbere errealitatera hurbiltzeko.
- Adierazpen artistikoa bere era ezberdinetan garatzea: marrazkia, dramatizazioa, plastikoa...
- Eskubide eta betebeharren "mundua" esanguratsu eta hurbila egitea.

Garapena: Hiru eskubide zehatzen gainean eta beroriek bermatzeko behar diren hiritarren betebeharrak edo erantzukizunen inguruan lan egiteko proposamena egingo da. Horretarako, eskubide eta betebeharrak horiek azaldu beharko dira. Egiteko era librea da, beraiek erabakiko dute banaka, taldeka edo bikoteka egin, halaber erabaki beharko dute nola azaldu nahi dituzten: mimika, pintura, plastika, idazlana, ...

Erabakia era ordenatuan hartzeko eskatuko zaie eta behin "lana" amaituta gainontzeko ikaskideen aurrean azaltzeko esango zaie.

Materiala: Azalpena egiteko behar dena.

Iraupena: Ordu 1.

Iradokizunak: Bada Alboan-en eska daitekeen material osagarria. Girotzeko 10 kartel dira, gaiaren ingurukoak (eskubideak eta betebeharrak). Lehen proposaturiko jarduera burutu aurretik, neska-mutikoen kartelak ikus ditzakete eta banan-banan arretaz aztertu bakoitzak zer esan nahi duen "asmatzen" ahaleginduz. Azkenik, lanera zehazki dedikatutako kartela osatu ahal izango dute bertan ezinbestekotzat jotzen dituzten eskubide eta betebeharrak aipatuz.



Zeuk jartzen dituzu arauak

Helburuak:

- Joko bat sortzea aurretiaz ezarritako arau batzuk betez.
- Ulertzea arauak bete ezean oreka apurto eta jokoak hasierako zentzua galduko duela.
- Talde lanean sormena garatzea.
- Besteen lana ebaluatzea ezarritako irizpideak kontuan izanik.
- Norbere lanari buru besteek dituzten iritzi eta kritikak onartzea.

Garapena:

Lau taldetan bildu eta honako materiala emango zaio talde bakoitzari:

- Metro erdi baino gehiagoko hodi bat (ahal izanez gero hobe kartoi gogorrezkoa arriskutsua izan ez dadin).
- Baloi bat.
- Txanpon bat.
- Zapi bat.

Horrekin guztiarekin, talde bakoitzak joko bat asmatuko du honako baldintza hauek bete behar dituela kontuan hartuta:


1. Dibertigarria izatea.
2. Nahi duen beste jendek parte hartzeko aukera ematea.
3. Banatutako material guztiak nahitaezko izatea.

Behin jokia diseinatuta, eta norberak egindakoa probatu gabe, talde guztiek egin dituzten jokoekin jolastuko dira eta ikusi ahal izango dute benetan betetzen diren ezarritako baldintza edo arauak. Hala ez balitz, aldaketak proposatu beharko dituzte baldintza bete daitezen.

Ostean, hausnarketa arauak egotearen beharraz izan daiteke, neure eskubideak eta besteenak errespetatzeaz...

Materiala: Osatuko diren taldeen arabera hodi, baloi, txanpon eta zapi kopuru nahikoa.

Iraupena: Ordu 1.



Lasai motel

Helburuak:

- Modan diren abestien edukia aztertu eta adierazten dutenaz ohartzea.
- Gure inguruan gertatzen denaz jarrera kritikoa azaltzea axolagabetasuna ekidinez.
- Abestietan azaltzen diren pertsona eta egoerekin enpatizatzea horien gainean den hiritarren erantzukizuna zalan-tzatan jarritz.
- Musika kultura igorle kanal gisa ulertzea.

Garapena: Modan diren abesti batzuen letrak banatuko dira. Behin horiek entzunda, azterketarako fitxan azaltzen diren galdera erantzungo dituzte taldeka. Horretarako, internet bidez egileei buruzko informazioa lor dezakete, nongoak diren (herrialdea, kultura...), zein adin duten...

Materiala: Abestiak eta horien letrak, Internet.

Iraupena: Ordu 1.

Abestiak "Fijate bien" de Juanes. Discografía universal latino, 2000. Álbuma: "FIJATE BIEN". www.juanes.net

"La casa por la ventana" de Joaquín Sabina. BMG / Ariola / 1990. Álbuma: "ESTA BOCA ES MÍA"
www.todomusica.org/joaquin_sabina/joaquin_sabina_12.html

"Tranquilo Majete" de Celtas Cortos / 1993. Álbuma: "TRANQUILO MAJETE". www.members.es.tripod.de/garechaga/Letras/Cletas/Tranquilo.html

AZTERKETARAKO FITXA

Abestiaren izenburua: Álbuma:

Egilea Adina Herria

Zer-nolako gizartea azaltzen dute?

Zein hiritar azaltzen dira? Deskriba itzazue.

Zuek eta agertzen diren pertsonen artean, zeintzuk antzekotasun eta ezberdintasun daude?

Antzekotasunak

Ezberdintasunak

Abestiek agertzen duten errealitatea dela eta, uste al duzue pertsona guztientzako eskubideak daudela?

Zein betebeharrak beharko lituzkete pertsonak eskubide horiek bermatzeko?

Zer esan nahi du zuentzat "konprometitua" hitzak?

Aspaldikoak al dira azaltzen diren gaiak?

Pentsa itzazue abestietan agertzen diren egoerez ari diren adibide zehatz eta ezagunetan.

Prensa analizatzen

Helburuak:

- Prentsa eta irudiak era kritikoan erabili eta aztertzea.
- Giza eskubideak hausten diren kasuak antzematea.
- Errealitatea eska daitezkeen eskubideak eta bete behar diren betebeharren ikuspegitik ulertzea.

Garapena: Banaka prentsa artikulua, iragarki publizitarioak, irudiak, argazkiak... bilatzea, giza eskubideak hausten diren kasuak agertzen dituztenak hain zuzen ere. Aurkitutako guztietatik bakar bat hautatuko dute. Ondoren, taldeka bilduko dira jasotako material guztia berrikusi eta aztertzeko.

Materiala: Egunkariak, aldizkariak, publizitatea, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta azterketarako galderak.

Iraupena: Ordu 2.

Azterketarako galderak

Eskubideak.

Zein eskubide azaltzen da hautsita?

Nortzuk hausten dituzten eskubideak?

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko zein artikulua hautsi da?

Betebeharrak / Ekintzak.

Zein betebeharrak bete behar dira?

Zein ekintza burutu litezke urrututa agertzen diren eskubideak defendatzeko?

Proposa ezazue ikastetxetik burutu daitezkeen ekintza bat gutxienez.



Ekintza batek hamaika hitzek baino balio handiagoa du

Helburuak:

- Babesten gaituen eskubide bat formulatu eta berau errealitatean betetzearen artean den ezberdintasunaz jabetzea.
- Eskubide eta betebeharretan txanpon bakar bateko bi aldeetan legez pentsatzea.
- Deserosotasun eta inkonformismo jarrera izatea inguruan dugun errealitatearen egia ezagutzean.

Garapena: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, mundu guztiak ezagutzen duena, ekintzetara eraman beharra dago benetan unibertsala izan dadin. Jarduera honetan, gazteek Giza ESKUBIDEEN Deklarazio Unibertsala eta Giza EKINTZEN Deklarazio Unibertsala aurrez aurre ipini eta konparatu beharko dituzte.

Deklarazio bien arteko azterketa eta konparaketa binaka egingo dute eta azkenean ondorioak guztien artean komentatuko dira.


Materiala: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala: <http://www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm>
Giza Ekintzen Deklarazio Unibertsala: <http://www.uca.edu.ni/koinonia/logos/logos046.htm>

Iraupena: 90 minutu.

“Badakigu unibertsal ezin izan daitezkeen eskubideak ez direla eskubideak, pribilegioak baizik”.

Guztiok ezagutzen dugu 1948an nazioarteko komunitateak sinaturiko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

Baina, ba al zenekien “Giza Ekintzen Deklarazio Unibertsala” ere badela? Konpara itzazue binaka deklarazio biak.



Bideoa ikusi bitartean

Zine emanaldia

Helburuak:

- Bideoaren edukia aktiboki ikusi eta entzutea.
- Irudien bitartez ziurtatzea eskubide eta betebeharrak eta geure ekintzen eragin eta ondorioen arteko lotura.
- Eskubide eta betebeharren arteko oreka eta elkarrekikotasuna izatearen beharraz ohartzea.
- Mundu mailako interkonexioa ulertu eta herritar garen aldetik dugun erantzukizuna onartzea.

Garapena: Emanaldia baino lehenago zenbait datu eta komentario egiteko gidoi edo orri bat banatuko da. Gidoiaren xedea neska-mutilak emanaldian zehar adi egon eta geroagoko jardueretan erabili ahal izango diren datuak jasotzea izango da.

Komeni da bideoa ikusi aurretik ondo irakurtzea oharren orria aurretiaz zer eskatzen zaien jakin eta arreta bideotik ahalik eta gutxien ken dezaten.

Materiala: Bideoa ikusteko gidioa.

Iraupena: 20 minutu.

Iradokizunak: Emanaldia amaitutakoan eta bideoak taldean eragindako lehenengo inpresioak eta oharren gidioan jasotako guztia konpartitzeko era legez, lehendabiziko jarduera aplikatzea komeni da *“bideoa ikusi ostean”* blokea duena.


Bideoa ikusteko gidioa



Hitz nagusiak • bideoaren ardatza

-
-

Ezagunak, hurbilak egiten zaizkizun eszenak.

-
-
-





Eskubide bat betebeharrati lotzen zaion kasuak

Zein eskubide:

-
-
-

Zein betebeharrati:

-
-
-

Osatu beharreko esaldiak

Ikusi duzue, honetarako, beste horretarako eskubidea dut, baina eskubide horiek guztiak

.....

Nork konpartituko ez balitz, komunitatea Aberastuko da
-rekin, nahiz eta beti izan soilik gauzak jaitsi eta ezer igitzen ez duen azkar ustekoa.

Gatazka sortzen da,-ren faltatik.

Ekialdeko jakinduriak asko esan behar digu oreka horren gainean:

.....

Napster-rera salto eginez gero argi ikus dezakegu: ez genituen gai batzuk jaitzen ari gara, baten batek geuk konpartitu duguna hartzen ari da. Hor dago: mp3 agiriak sartu eta irteten egongo ez balitz, komunitatea

Bista hau goitik pasatuta hobeto ulertzen da. Hemendik ikus dezakegu nola egiten dugun guztiak, txikia iruditzen bazaigu ere, dauka.

Goazen, dena baitago, onerako edo txarrerako.

Guztiok kontuan izango bagenu, gauzak aldatu egingo lirateke gure etxean, auzoan, herrian... mundu osoan.



Bideoa ikusi ostean

Lehenengo inpresioak

Helburuak:

- Lehenengo inpresioak eta alderdi erabilgarriak jasotzea geroagoko jarduerak landu ahal izateko.
- Eskubide, betebeharrak eta bien arteko orekaz nabarmena izan dena konpartitzea.

Garapena: Bideoa ikusia ostean, eta berorrek ikasleengan eragin dituen inpresioak jasotzeko, 5 pertsonatako taldeak egingo dira. Talde guztietan ikasleek bideoa ikusi bitartean jaso dutena komunean jarriko da. Jarduera ateratako ondorioak eta piztutako sentimenduak konpartitzean datza.

Materiala: Komunean jartzeko galderak.

Iraupena: 20 minutu.

Komunean jartzeko galderak

- Zer izan da gehien gustatu zaizuena?
- Zerk hunkitu zaituzte gehien? Zerk harritu zaituzte?
- Bideoan azaltzen diren zein eszena edo irudi egiten zaizue gertuko?
- Zein kasutan azaltzen dira betebeharrak loturiko eskubideak?
- Zein da bideoak igortzen duen mezu nagusia?
- Zein uste duzue izan beharko litzatekeela hartu beharreko jarrera bizi garen mundu honetan protagonista garen aldetik?
Zein ekintza zehatz ari gara garatzen eta zein gara genezake?



Konektatzen

Helburuak:

- Emanaldiko eszenak egunerokoekin lotzea.
- Ulertzea norbere ekintza eta jarrerak beste pertsona eta lekuetan eragina eta ondorioak dituztela.
- Norbere erantzukizuna onartzea mundu interkonektatu batean.

Garapena: Bideoak gure ekintzetako batzuek beste pertsona eta planetako leku ezberdinetan eragina dutela islatzen du. Horren gainean hausnartzeko, taldeak bildu eta "neure gauzak" eta "besteenen" artean den beste lotura kasuetan pentsatzeko eskatuko zaie. Hau da, norbere jarduera eta ohiturek (positiboak edo negatiboak) beste pertsona batzuen bizitzan, errespetuan edo horien eskubideak urratzean zuzenean eragiten duten egoera ezberdinetan pentsatuko dute.

Jarduerak geure ekintza eta jarreraren garrantziaz hausnartzeko aukera izateko guztien arteko elkarriketa batekin amai daiteke.

Materiala: Komunean jartzeko iradokizunak.

Iraupena: 30 minutu.

Komunean jartzeko iradokizunak

- Uste al duzue mundua interkonektaturik dagoen lekua dela eta leku batean gertatzen denak ondorioak dituela beste batean?
- Aurkitu al dituzue lotura hori azaltzen duten kasu asko? Zuengandik hurbil edo ohikoak diren egoerak al dira? Pentsa ezazue zenbait adibidetan.
- Zeintzuk dira planeta honetako biztanleak eta hiritarrak garen aldetik ditugun erantzukizunak?



Zertarako eskubidea... Zertarako betebeharra...

Helburuak:

- Utziezinak diren eskubideez hausnartzea.
- Eskubide eta betebeharren arteko lotura estuaz ohartzea.
- Eskubide jakin batzuk bermatzeko betebehar batzuk betetzearen garrantzia ulertzea.

Garapena: Bideoan azaltzen diren betebeharretara loturiko eskubideak gogoratzeko eskatuko zaie ikasleei gero hitz-zopan bila ditzaten.

Ondoren, utziezinak direla uste duten eskubide horien gaineko ideia jariora egingo da. Zerrenda eginda dagoela, hezitzaileak banan-banan irakurriko ditu bertan diren eskubideak. Ikasleek txandaka aipatutako eskubidearekin zein betebehar dagoen zuzenean lotuta esango dute.

Joko hau talde txikietan ere egin daiteke. Era horretara garapena arinagoa izango da.

Materiala: Hitz-zopa.

Iraupena: 30 minutu.

Zertarako eskubidea...

Zertarako betebeharra...

A	U	S	T	N	U	S	A	S	O	O	R	I	G	U	R	U	G	N	I
Z	X	A	K	A	S	I	F	G	T	I	B	Z	O	P	N	A	S	T	X
B	A	X	A	T	I	O	N	D	E	G	B	A	P	M	K	S	A	R	I
M	S	I	T	U	Z	N	A	P	S	T	E	R	J	Z	U	K	S	E	R
U	K	S	N	U	N	I	Z	E	R	D	A	N	I	L	S	B	R	T	N
X	O	K	R	D	N	I	B	P	A	R	I	R	U	T	X	I	E	Z	R
O	L	A	N	D	U	R	E	D	K	T	E	R	T	E	A	K	N	F	E
X	M	I	Z	U	N	I	K	A	S	I	S	A	R	S	E	Z	T	D	T
A	T	Z	G	A	D	O	N	F	R	I	G	T	M	A	L	E	Z	R	K
G	I	A	O	N	J	R	A	G	P	O	L	N	A	Y	Z	K	U	D	A
N	A	R	T	S	A	L	K	U	U	T	I	E	S	P	A	X	N	C	Z
U	R	E	Z	T	M	U	S	I	B	R	S	A	N	P	E	T	B	P	T
K	R	I	A	P	R	E	N	B	A	C	U	K	I	B	M	T	R	A	M
L	E	D	U	M	L	I	N	K	Z	I	P	G	R	X	H	Z	S	E	K
O	D	A	Z	T	F	B	A	J	M	U	N	J	I	B	K	O	B	L	A
Z	I	R	A	B	I	T	S	A	S	J	O	K	E	R	B	G	H	X	Z
M	U	N	D	I	S	K	O	B	A	B	E	S	G	I	O	R	O	A	K
A	N	D	R	I	R	E	A	G	U	R	U	E	N	D	U	A	T	Z	A

Orekaren bila

Helburuak:

- Oreka eta desoreka egoerak bizitzea.
- Oreka lankidetzaren bidez lortzea.
- Eskubide eta betebeharren artean oreka izatearen beharra ulertzea.

Garapena: Bien artean proportzio fisikorik ez duten pertsona bi elkartuko dira (altuera eta pisu ezberdina). Bikote bakoitzeko kideak aurrez aurre jarriko dira eskutik helduta, oinak elkartu eta puntak lotuta. Jarrera horretan eta oinak lurrean finko, kideak atzerantz euren burua erortzen utziko dute besoak erabat luzatuta izan eta bikotean oreka lortu arte. Jarrera horretan daudela, mugimenduak egiteko eskatuko zaie, errazak hasieran eta progresiboki gero eta zailago egiten.

Materiala: Taldeka hausnartzeko galderak.

Iraupena: 40 minutu.

Aldaera: Bikoteko kideak elkarri sorbalda ukitzen jarriko dira lurrean eserita eta besoak elkarri lotuta. Mugimenduak koordinatu beharko dituzte biak batera altxatu ahal izateko.

Taldeka hausnartzeko

Jarduera bitartean:

- Nola sentitu zarete?
- Erraza gertatu zaizue oreka lortzea? Zer egin duzue lortzeko?
- Zer gertatu da bikoteen proportzioa oso ezberdina izan denena?

Eskubideak eta betebeharrak lotzen:

- Uste al duzue garrantzitsua dela eskubide eta betebeharren artean oreka izatea?
- Zuen ustez, zaila al da hori lortzea?
- Zeintzuk baldintza behar dira oreka gertatu ahal izateko?
- Zeintzuk dira gure erantzukizunak oreka hori gerta dadin? Eta komunitatearenak? Eta Estatuarenak?

EpaiKETARA

Helburuak:

- Eskubideak urratzen diren egoerak antzeman eta horien gainean hausnartzea.
- Egoera problematikoen aurrean irtenbideak modu arduratsu eta bidezko batean hartzea eskubide eta betebeharren arteko oreka bilatuz.
- Egoera gatazkatsuei buruzko argumentuak era aktibo eta kritiko batean entzutea.

Garapena: Taldeka, neska-mutikoen egunero testuinguru ezberdinetan (familia, auzoa, ikastetxea) eta errealitate ezberdinei (ingurumena, zerbitzuak...) bizi dituzten egoera gatazkatsuak komentatuko dituzte. Behin ideiak azalduta, talde bakoitzak zerrendako zein hiru egoera gertatzen diren sarrien erabakiko dute. Talde ezberdinen artean komunean jarrita azaldutako kasu guztien artean bat aukeratu da egongo den epaiKETAKO ardatz izan dadin. Guztien artean paperak edo rolak banatuko dituzte: defentsa abokatua, epailea, fiskala, epaimahaia.

Defentsa zein akusazioak kasua irabazteko beharrezko deritzeten argumentuak prestatuko dituzte, baina epaile eta epaimahaiaren aurrean hiru baino ezin izango dira azaldu. Hortaz, euren ustez helburua lortzeko garrantzitsuen edo konbentzigarrien diren argumentuei eman beharko diete lehentasuna.

Epaimahaiak epaiAZ deliberratuKO dute epaiKETA egin ostean. Emaitzak erabakiko du:

- Nor den erruduna.
- Eskubideak urratuak izan diren kasuak salatzeko bitartekorik egokienak zeintzuk diren.
- Jendeak euren eskubideak defendatzeko bete behar dituen betebeharrak zeintzuk diren.
- Hautsitako eskubidea dela eta eragindako kalteen konponketa.

Materiala: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala: <http://www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm>

Iraupena: 90 minutu.

Eta gu, zer?

Helburuak:

- Irudimena garatzea arazoak konpontzean.
- Eguneroko jarduerak beste pertsona batzuen eskubideetan dituzten eragin eta ondorioak antzematea.
- Norbere erantzukizuna urraturiko eskubideen aurrean onartzea.
- Beste kide batzuek deskribaturiko egoerekin enpatizatzea.

Garapena: Pertsona bakoitzak paper batean eta era anonimoan, hiritar legez bete beharrekoak ez betetzeagatik beste pertsona baten eskubidea hautsi duen egoera pertsonala idatziko du. Paperak poltsa batean sartuko dira. Talde txikietan bilduta, zoriz taldean den kide beste paper emango zaie. Kide bakoitzak paper bat hartu eta ozenki irakurriKO du. Taldeak egoera komentatuko du, zergatik gertatu den hausnartuz, zein eskubide urratu den, nola ekidin zitekeen, inoiz bera antzeko egoera batean egon izan den.

Materiala: Zuriz dauden txartelak, txartelak sartzeko poltsa edo kutxa bat.

Iraupena: Ordu 1.

Eskubide eta betebeharren biltzarra

Helburuak:

- Sormena eta laburpena egiteko gaitasuna garatzea ahozko adierazpenetan.
- Ahozko adierazpena eta publikoan hitz egiteko gaitasuna hobetzea.
- Besteak era aktibo eta adeitsuan entzutea.
- Gizarte kolektibo ezberdinekin enpatizatzea euren eskubideak eta betebeharrak lortzeko.

Garapena: Jarduera gisa rol jokia egitea proposatuko da. Egoera honako hau da: eskubide eta betebeharrei buruzko biltzarra antolatu da eta bertara joateko zazpi elkarte ezberdin deitu da: sindikalistak, etxekoandre/gizonak, ikasleak, politikariak, enpresariak, langileak eta irakasleak.

Biltzarrari hasiera emango diote adituek, aurretiaz giza eskubide eta hauek betetzeko herritarren betebeharren inguruko euren txostenak prestatuta izango dituztenak. Bestalde, gainontzeko elkarteek euren kezka, interes eta errealitateen gaineko galderak izango dituzte prestatuta. Biltzarkideen partehartzeen ostean (gehienez 10 minutu bakoitzeko), publikoak galderak egiteko tarte zabalduko da gonbidatu eta bertaratutakoaren artean elkarriketa sortuz.

Pertsona bat biltzarra aurkeztu eta moderatzeaz arduratuko da bai eta ondorioak jaso eta azaltzeaz ere.

Materiala: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. <http://www.unhchr.ch/udhr/lang/bsq.htm>

Iraupena: Ordu 2.

Rolak:

- Aurkezlea – moderatzailea.
- 3 aditu Giza Eskubideetan.
- Zazpi talde:
 - ◇ Sindikalistak.
 - ◇ Etxekoandre-gizonak.
 - ◇ Ikasleak.
 - ◇ Politikariak.
 - ◇ Enpresariak.
 - ◇ Langileak.
 - ◇ Irakasleak.



Karteleran

Helburuak:

- Talde lanetan lankidetzeta eta adostasun estrategiak eskuratzea.
- Zinema hausnarketa eta debate tresna legez erabiltzea.
- Elkarrizketa bat zuzendu eta ondorioak biltzeko gai izatea.

Garapena: Taldea bost ekipotan banatuko da eta kartelera erakutsiko zaie. Ekipo bakoitzak pelikula bat aukeratuko du. Ikusi ondoren, eskubide eta betebeharren arteko loturari erreferentzia egiten dion pasarteren bat hautatuko dute. Hor-tik abiatuta bideo forum txiki bat antolatuko dute taldean elkarrizketa errazteko. Horrela, pelikula eta eszenaren aurkezpena egingo dute eta elkarrizketa eskubideak eta horiek dakartzaten betebeharren onarpenean kokatuko dute.

Ikasturtean zehar saio ezberdinak eman daitezke talde bakoitzak prestatuko bideo forumetarako.

Materiala: Erabiliko diren pelikulak eta jarraian aurkeztuko den fitxa.

Iraupena: 3 ordu.

Iradokizunak: Bideoa ikusita eta aurreko jarduera batzuk landu ostean, taldeka bideo horren beste paralelo baterako gidoia diseinatuko dute, eskubideak, betebeharrak eta pertsonen erantzukizunak munduko biztanle eta protagonista diren aldetik. Behin gidoia prestatu eta idatzi ostean, grabatu egingo dute. Horretarako, eman nahi dioten ikuspegian pentsatuko dute, igorri nahi duten mezuan eta irudien muntaietan. Era berean, burutu beharreko rolak banatuko dira: aktoreak, zuzendaritza, etab.

Oharra: *Jarduera burutzeko behar diren bitartekoak badira, taldeek gidoia egin eta antzez dezakete.*

Kartelera

- Aitarenean
- Brasileko Geltoki Nagusia
- Bakarrik
- Egiten
- Leku bat munduan

